



**ORIOKO UDALA**

ORIO (GIPUZKOA)

**AKTA**

# Udalbatzarraren ezohiko bilkura

**EGUNA:** 2009ko ekainaren 23a, asteartea

**TOKIA:** Udalbatzarraren aretoa, udaletxean

**DEIALDIA:** Lehena

**HASTEKO ORDUA:** 18:30

**BUKATZEKO ORDUA:** 18:55

**BERTARATUAK:**

**Alkatea**

Jon Redondo Lertxundi

**Zinegotziak**

Noemi Ostolaza Arkauz, Martxiel Genova Solaberrieta, Angel del Hoyo Bravo, Karmele Belasko Garro, Jose M. Goiburu Manzisidor, Leire Zinkunegi Lopez De Gereño, Iñaki Garcia Aranbarri, Iñaki Koldo Iturain Azpiroz, Juan Vicente Lasa Karrikaburu eta Jesus Jose Juan Rodriguez Pousa.

**Idazkari-kontu hartzailea**

Jon Carrera Jauregi

## **AZTERGAI ZERRENDA**

1. Onartzea, egoki bada, Orioko Arraun Elkartearen udal instalazioak arraunketa eta piraguismoko teknifikazio zentro bat instalatzeko handitu eta berritzeko obren proiektu teknikoa, Manu Atristain eta Jon Begiristain arkitektoek idatzia.
2. Dagozkion erabakiak hartzea, egoki bada, Orioko Arau Subsidiarioetako 8. sektoreko —Munto— futbol/sofbol zelaiaren azpiko garajeen adjudikazioari, obra berriaren adierazpenari eta salerosketari buruz.
3. Ematea, egoki bada, Orioko “Hondartza” inguruan (EUA3) dauden 39 udal etxebizitza tasatuen proiektuari dagokion bisatua eta behin betiko kalifikazioa.
4. Dagozkion erabakiak hartzea, egoki bada, Orioko Hondartza inguruko EUA3an dauden babes ofizialeko 36 etxebizitzaren eta 39 udal etxebizitza tasatuen obra berriaren adierazpenari, jabetza horizontalean zatitzeari eta salerosketari buruz



## **ORIOKO UDALA**

ORIO (GIPUZKOA)

Udalbatzarraren ezohiko bilkura  
2009/06/23

5. Adjudikatzea, egoki bada, Orioko udal kanpineko taberna eta supermerkatu zerbitzuak kontzesio administratiboko erregimenean emateko kontratua.
6. Iñaki Iturainek (EB-B-Aralar) aurkeztu duen idatziaren berri ematea. Idatzi horren bitartez uko egiten dio bere heren bateko (1/3) liberazioari, 2009ko uztailaren 1etik aurrera.
7. Onartzea, egoki bada, alkatetzaren proposamena, Udalak bere egiteko Eudelen idatzia, ETAk 2009ko ekainaren 19an egindako atentatua gogor salatzen duena.

### **ESAN-EGINAK**

#### **1.- ONARTZEA, EGOKI BADA, ORIOKO ARRAUN ELKARTEAREN UDAL INSTALAZIOAK ARRAUNKETA ETA PIRAGUISMOKO TEKNIFIKAZIO ZENTRO BAT INSTALATZEKO HANDITU ETA BERRITZEKO OBREN PROIEKTU TEKNIKOA, MANU ATRISTAIN ETA JON BEGIRISTAIN ARKITEKTOEK IDATZIA.**

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du. Proiektuaren kontrata bidezko exekuzio-aurrekontua 4.479.778,77 eurokoa da (BEZ barne).

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta Gertutasuna, Giza Balioak eta Herri Antolaketa batzorde informatzaileak 2009ko ekainaren 17an emandako diktamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ [guztira HAMAIKA BAIEZKO BOTO]:**

**ONARTZEA** Orioko Arraun Elkartearen udal instalazioak arraunketa eta piraguismoko teknifikazio zentro bat instalatzeko handitu eta berritzeo obren proiektu teknikoa, Manu Atristain eta Jon Begiristain arkitektoek idatzia; proiektuaren kontrata bidezko exekuzio-aurrekontua 4.479.778,77 eurokoa da (BEZ barne).

#### **2.- DAGOZKION ERABAKIAK HARTZEA, EGOKI BADA, ORIOKO ARAU SUBSIDIARIOETAKO 8. SEKTOREKO —MUNTO— FUTBOL/SOFBOL ZELAIAREN AZPIKO GARAJEEN ADJUDIKAZIOARI, OBRA BERRIAREN ADIERAZPENARI ETA SALEROSKETARI BURUZ.**

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Garajeak adjudikatzeko proposamena ondoko hau da:

	<b>IZEN ABIZENAK</b>	<b>ADJUDIKATUTAKO GARAJE ZENBAKIA</b>	<b>PREZIOA (BEZ barne)</b>
1	<b>AGUIRREBEÑA GUEREC A NE MIREN</b>	<b>139</b>	<b>29.063,28</b>
2	<b>BLAZQUEZ DE LA FUENTE MARIANO</b>	<b>148</b>	<b>29.063,28</b>
3	<b>GOIKOETXEA MIRANDA OIHANA</b>	<b>172</b>	<b>23.200,00</b>
4	<b>CAMPOS ALDAY NAIARA</b>	<b>173</b>	<b>23.200,00</b>



# ORIOKO UDALA

ORIO (GIPUZKOA)

Udalbatzarraren ezohiko bilkura  
2009/06/23

5	SANZ GARCIA M <sup>a</sup> LOURDES	174	23.200,00
6	IGOA AGUIRREZABAL GOTZON	175	23.200,00
7	IPARRAGUIRRE ALBERDI JOSE ANGEL	176	23.200,00
8	REDONDO GONZALEZ DIONISIO	177	23.200,00
9	BALERDI COLOMO AMAIA	178	23.200,00
10	MANCISIDOR MARTIL JOSEBA	179	23.200,00
11	CUMBRES GARCIA MONICA	180	23.200,00
12	LIZASO AIZPURUA IÑAKI	182	23.200,00
13	ALBERDI SALSAMENDI GOTZON	183	29.063,28
14	AGUIRRESAROBÉ MANTEROLA JOSE IGNACIO	184	23.200,00
15	BASURTO LETE ANDER	185	23.200,00
16	UDABE AGUIRRE NEREA	186	23.200,00
17	LOPEZ MORAN MARIA JOSE	187	23.200,00
18	ECHEVERRIA IRIGARAY RICARDO	192	23.200,00
19	ECHAVE OLASCOAGA JUAN M <sup>a</sup>	193	23.200,00
20	URRETAVIZCAYA UDABE MARIA INMACULADA	194	23.200,00
21	GOÑI IZAGUIRRE FERNANDO	196	23.200,00
22	REDONDO GONZALEZ FRANCISCA	197	23.200,00
23	REDONDO GONZALEZ MAITE	198	23.200,00
24	RODRIGUEZ SAGREDO JOSE ANTONIO	199	23.200,00
25	LUCAS MUGICA JOSE FRANCISCO	200	23.200,00
26	AZURMENDI IZAGUIRRE LUIS	201	23.200,00
27	OTAMENDI IRASTORZA MIREN KARMELE	202	29.063,28
28	MANTEROLA ELORZA JOSEBA IÑAKI	203	29.063,28
29	BARRENETXEA IRIONDO JUAN CRUZ	222	29.063,28
30	LASA ERCILLA IGNACIO	234	23.200,00
31	MUJIKAZABAL AGUSTIN	235	23.200,00
32	ATORRASAGASTI ETXABE LAUREANO	236	23.200,00
33	GOENAGA ERRONDOSORO JOSE ANGEL	237	23.200,00
34	OSTOLAZA ARCAUZ NEREA	238	23.200,00
35	LOPETEGUI ECHEVERRIA GABRIEL	239	23.200,00
36	ODRIOZOLA CAMINOS M <sup>a</sup> JESUS	240	23.200,00
37	URANGA MARTINEZ DE ALEGRIA JON	241	23.200,00
38	ICUTZA AZURMENDI IGOR	242	23.200,00
39	ALUSTIZA AYERDI ANGEL	243	23.200,00
40	INDO LIZARRALDE RAMON	247	29.063,28
41	ARRUABARRENA EIZAGUIRRE MARIA LUISA	259	23.200,00
42	OLIDEN LIZARRALDE JOSEBA	260	23.200,00
43	URANGA AZKUE IMANOL	261	23.200,00
44	IDIGORAS MENDOZA IBON	262	23.200,00
45	LUIS PADRONES Y OTROS CB	263	23.200,00
46	MARTIN OTERO JOSE ANGEL	264	23.200,00
47	MARTIN OTERO JOSE ANGEL	265	23.200,00
48	MORENO GONZALEZ CRISTINA AGUEDA	266	29.063,28



## ORIOKO UDALA

ORIO (GIPUZKOA)

Udalbatzarraren ezohiko bilkura  
2009/06/23

Iñaki Garcia zinegotziak (EB-B/Aralar) hartzen du hitza eta adierazten du bere alderdi politikoa, Ezker Batua-Berdeak, Munton eraikitako garajeen pribatizazioaren kontra dagoela; segidan, aipatzen du Gipuzkoako Foru Aldundiaren 2007ko abenduaren 20ko txosten bat, aholkatzen duena futbol/sofbol zelaiaren azpiko garajeak publikoak izatea eta ez pribatuak; azkenik gogorarazten du Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Sailak ere eskaria egin zuela garaje horiek publikoak eta errotatiboak izateko.

Udalbatzarra jakinaren ganean geratzen da eta Gertutasuna, Giza Balioak eta Herri Antolaketa batzorde Informatzaileak 2009ko ekainaren 17an egindako bilkuran emandako diktamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, honako hau **ERABAKITZEN DU, BOZKETA BIDEZ** [aldeko botoak: Redondo (EAJ-PNV), Ostolaza (EAJ-PNV), Genova (EAJ-PNV), Del Hoyo (EAJ-PNV) eta Rodriguez (PSE-EE-PSOE), guztira **BOST ALDEKO BOTO**; kontrako botoak: Garcia (EB-B/Aralar), guztira **KONTRAKO BOTO BAT**; abstentzio botoak: Belasko (talde mistoa), Goiburu (talde mistoa), Zinkunegi (talde mistoa), Iturain (EB-B/Aralar) eta Lasa (EA), guztira **BOST ABSTENTZIO BOTO**]:

**1.- ADJUDIKATZEA** Orioko Arau Subsidiarioetako 8. sektoreko —Munto— futbol/sofbol zelaiaren azpian eraikitako garajeak honako pertsona hauei:

	IZEN ABIZENAK	ADJUDIKATUTAKO GARAJE ZENBAKIA	PREZIOA (BEZ barne)
1	AGUIRREBEÑA GUERECA ANE MIREN	139	29.063,28
2	BLAZQUEZ DE LA FUENTE MARIANO	148	29.063,28
3	GOIKOETXEA MIRANDA OIHANA	172	23.200,00
4	CAMPOS ALDAY NAIARA	173	23.200,00
5	SANZ GARCIA M <sup>a</sup> LOURDES	174	23.200,00
6	IGOA AGUIRREZABAL GOTZON	175	23.200,00
7	IPARRAGUIRRE ALBERDI JOSE ANGEL	176	23.200,00
8	REDONDO GONZALEZ DIONISIO	177	23.200,00
9	BALERDI COLOMO AMAIA	178	23.200,00
10	MANCISIDOR MARTIL JOSEBA	179	23.200,00
11	CUMBRES GARCIA MONICA	180	23.200,00
12	LIZASO AIZPURUA IÑAKI	182	23.200,00
13	ALBERDI SALSAMENDI GOTZON	183	29.063,28
14	AGUIRRESAROBÉ MANTEROLA JOSE IGNACIO	184	23.200,00
15	BASURTO LETE ANDER	185	23.200,00
16	UDABE AGUIRRE NEREA	186	23.200,00
17	LOPEZ MORAN MARIA JOSE	187	23.200,00
18	ECHEVERRIA IRIGARAY RICARDO	192	23.200,00
19	ECHAVE OLASCOAGA JUAN M <sup>a</sup>	193	23.200,00
20	URRETAVIZCAYA UDABE MARIA INMACULADA	194	23.200,00
21	GOÑI IZAGUIRRE FERNANDO	196	23.200,00
22	REDONDO GONZALEZ FRANCISCA	197	23.200,00
23	REDONDO GONZALEZ MAITE	198	23.200,00
24	RODRIGUEZ SAGREDO JOSE ANTONIO	199	23.200,00
25	LUCAS MUGICA JOSE FRANCISCO	200	23.200,00



## ORIOKO UDALA

ORIO (GIPUZKOA)

Udalbatzarraren ezohiko bilkura  
2009/06/23

26	AZURMENDI IZAGUIRRE LUIS	201	23.200,00
27	OTAMENDI IRASTORZA MIREN KARMELE	202	29.063,28
28	MANTEROLA ELORZA JOSEBA IÑAKI	203	29.063,28
29	BARRENETXEA IRIONDO JUAN CRUZ	222	29.063,28
30	LASA ERCILLA IGNACIO	234	23.200,00
31	MUJIKAZ REZABAL AGUSTIN	235	23.200,00
32	ATORRASAGASTI ETXABE LAUREANO	236	23.200,00
33	GOENAGA ERRONDOSORO JOSE ANGEL	237	23.200,00
34	OSTOLAZA ARCAUZ NEREA	238	23.200,00
35	LOPETEGUI ECHEVERRIA GABRIEL	239	23.200,00
36	ODRIOZOLA CAMINOS M <sup>a</sup> JESUS	240	23.200,00
37	URANGA MARTINEZ DE ALEGRIA JON	241	23.200,00
38	ICUTZA AZURMENDI IGOR	242	23.200,00
39	ALUSTIZA AYERDI ANGEL	243	23.200,00
40	INDO LIZARRALDE RAMON	247	29.063,28
41	ARRUABARRENA EIZAGUIRRE MARIA LUISA	259	23.200,00
42	OLIDEN LIZARRALDE JOSEBA	260	23.200,00
43	URANGA AZKUE IMANOL	261	23.200,00
44	IDIGORAS MENDOZA IBON	262	23.200,00
45	LUIS PADRONES Y OTROS CB	263	23.200,00
46	MARTIN OTERO JOSE ANGEL	264	23.200,00
47	MARTIN OTERO JOSE ANGEL	265	23.200,00
48	MORENO GONZALEZ CRISTINA AGUEDA	266	29.063,28

**2.- FORMALIZATZEA** obra berriaren izendapena eta garajeen salerosketa, dagozkion agirien bidez.

**3.- AHALMEN ZABALA EMATEA** Orioko alkateari obra berriaren eskritura publikoa izenpetzeko eta Muntoko sektoreko futbol/sofbol zelaiaren azpian eraikitako garaje guztien salerosketako eskritura publikoak izenpetzeko.

Emandako botoa azaltzeko, Joseba Goiburu zinegotziak (talde mistoa) hartzen du hitza eta adierazten du bere talde politikoak abstentzio botoa eman duela, ikusita Iñaki Garcia zinegotziak udalbatzarra baino hamar minutu lehenago emandako azken datuak, eta ez dutelako nahiko denborarik izan datu horiek behar bezala aztertzeko.

Bixente Lasa zinegotziak (EA) hartzen du hitza eta adierazten du bat egiten duela guztiz Joseba Goiburuk esandakoarekin.

**3.- EMATEA, EGOKI BADA, ORIOKO "HONDARTZA" INGURUAN (EUA3) DAUDEN 39 UDAL ETXEBIZITZA TASATUEN PROIEKTUARI DAGOKION BISATUA ETA BEHIN BETIKO KALIFIKAZIOA.**

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.



## **ORIOKO UDALA**

ORIO (GIPIZKOA)

Udalbatzarraren ezohiko bilkura  
2009/06/23

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta Gertutasuna, Giza Balioak eta Herri Antolaketa batzorde informatzaileak 2009ko ekainaren 17an emandako diktamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ [guztira HAMAIKA BAIEZKO BOTO]:**

**1.- EMATEA** erregimen bereziko udal etxebizitza tasatu izaera, behin betikoz, Orioko EU3.2 eta EUA3ko —Hondartza— 2B5 eta 2B6 partzeletan hurrenez hurren proiektatutako 21 eta 18 etxebizitzetzi; bertan sartuta daude, baita ere, —eta, beraz, onartuta geratzen dira— eraikiko diren 39 garaje-plaza, etxebizitza bakoitzeko bana.

**2.- EMATEA** Orioko EU3.2 eta EUA3ko —Hondartza— 2B5 eta 2B6 partzeletan hurrenez hurren proiektatutako 21 eta 18 erregimen bereziko udal etxebizitza tasatuen kontratuei dagokien bisatua, honako **BALDINTZAREKIN**: aldez aurretik etxebizitzaren beharraren baldintza betetzea.

**4.- DAGOZKION ERABAKIAK HARTZEA, EGOKI BADA, ORIOKO HONDARTZA INGURUKO EUA3AN DAUDEN BABES OFIZIALEKO 36 ETXEBIZITZEN ETA 39 UDAL ETXEBIZITZA TASATUEN OBRA BERRIAREN ADIERAZPENARI, JABETZA HORIZONTALLEAN ZATITZEARI ETA SALEROSKETARI BURUZ.**

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta Gertutasuna, Giza Balioak eta Herri Antolaketa batzorde informatzaileak 2009ko ekainaren 17an emandako diktamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ [guztira HAMAIKA BAIEZKO BOTO]:**

**1.- FORMALIZATZEA** dagozkion eskritura publikoak, Orioko Hondartza inguruko EUA3an dauden babes ofizialeko 36 etxebizitzaren eta 39 udal etxebizitza tasatuen obra berriaren adierazpenari, zortasuna eratzeari eta jabetza horizontalean zatitzeari dagozkionak eta, beraz, **AHALMEN ZABALA EMATEA** alkateari obra berriaren adierazpenaren eta jabetza horizontalean zatitzearen eskritura publikoa izenpetzeko.

**2.- FORMALIZATZEA** dagozkion eskritura publikoak, Orioko Hondartza inguruko EUA3an dauden babes ofizialeko 36 etxebizitzaren eta 39 udal etxebizitza tasatuen salerosketari dagozkionak eta, beraz, **AHALMEN ZABALA EMATEA** alkateari salerosketaren eskritura publiko horiek izenpetzeko.

**5.- ADJUDIKATZEA, EGOKI BADA, ORIOKO UDAL KANPINEKO TABERNA ETA SUPERMERKATU ZERBITZUAK KONTZESIO ADMINISTRATIBOKO ERREGIMENEAN EMATEKO KONTRATUA.**

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta Gertutasuna, Giza Balioak eta Herri Antolaketa batzorde informatzaileak 2009ko ekainaren 17an emandako diktamena



## **ORIOKO UDALA**

ORIO (GIPUZKOA)

Udalbatzarraren ezohiko bilkura  
2009/06/23

ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMAIKA BAIEZKO BOTO**]:

**BEHIN-BEHINEKOZ ADJUDIKATZEA** Matias Gallo Alvarez Orioko Udal Kanpineko taberna eta supermerkatu zerbitzuak kontzesio administratiboko erregimenean emateko kontratua, 15.005 euroko (BEZ barne) urteko kanonarekin, baldintza-orri administratibo partikularren arabera eta adjudikaziodunak berak bere eskaintzan ezarritako baldintzen arabera.

Behin-behineko adjudikazio hau **BEHIN BETIKO ADJUDIKAZIO** bihurtuko da, behin adjudikaziodunak aurkezten duenean dagokion dokumentazioa, zerga betebeharrak eta gizarte segurantzarekikoak egunean dituela justifikatzeko, eta behin betiko abala ematen duenean.

### **6.- IÑAKI ITURAINEK (EB-B-ARALAR) AURKEZTU DUEN IDATZIAREN BERRI EMATEA. IDATZI HORREN BITARTEZ UKO EGITEN DIO BERE HEREN BATEKO (1/3) LIBERAZIOARI, 2009KO UZTAILAREN 1ETIK AURRERA.**

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du. Iñaki Iturainek, idatzi baten bitartez, uko egin dio bere heren bateko (1/3) liberazioari, eta horrek 2009ko uztailaren 1etik aurrera izango du eragina.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da.

### **7.- ONARTZEA, EGOKI BADA, ALKATETZAREN PROPOSAMENA, UDALAK BERE EGITEKO EUDELEN IDATZIA, ETAK 2009KO EKAINAREN 19AN EGINDAKO ATENTATUA GOGOR SALATZEN DUENA.**

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du. EUDELen idatziak, hitzez hitz, honela dio:

*ORIOKO UDALAK BAT EGITEN DU EUDELEK ETAK ERANGINDAKO ATENTATUAREN GAITZESPENAREN IDATZIAREKIN*

*ETAK, 2009ko ekainaren 19an, Arrigorriagan egindako atentatu basatiaren aurrean, zeinetan Eduardo Antonio Pueyes García polizia nazionala hil duten, EUDELEk bere arbuiorik irmoena adierazi nahi dio ETAREN indarkeriari eta azpimarratu nahi du demokraziatik eta bizitzarekiko errespetutik abiatuta soilik lortuko dugula Bakea.*

*Zentzu horretan, Euskadiko Udalen Elkarteak Euskal Gizartearen aurrean hurrengo adierazi nahi du:*

*Lehena- EUDELen aburuz edozein herritarren kontra atentatua egiten duenak, euskal gizartearen kontrako atentatua egiten du.*





## **ORIOKO UDALA**

ORIO (GIPUZKOA)

Udalbatzarraren ezohiko bilkura  
2009/06/23

*Bigarrena- Gure gizartea anitza dela onartzen dutenak, hots, gurea bezalako gizartea aberasten duten aukera politiko, sozial eta kultural guztiak bere osotasunean aintzat hartzen dutenak baino ez dira onartuko demokrazian.*

*Hirugarrena- Euskadiko Udalen Elkartearen iritziz pertsona eta gizarte-erakundeen aurkako edozein atentatu, mehatxu edota gogorkeria jasangaitza da, beraz, gaur goizean Arrigorriagan izandako atentatua gaitzetsi nahi du eta familiarekiko elkartasuna adierazi.*

*Gure artean "ETA SOBERAN DAGO".*

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, gaia eztabaidatu ondoren, honako hau **ERABAKITZEN DU, BOZKETA BIDEZ** [aldeko botoak: Redondo (EAJ-PNV), Ostolaza (EAJ-PNV), Genova (EAJ-PNV), Del Hoyo (EAJ-PNV), Iturain (EB-B/Aralar), García (EB-B/Aralar), Lasa (EA) eta Rodriguez (PSE-EE-PSOE), guztira **ZORTZI ALDEKO BOTO**; kontrako botoak: Belasko (talde mistoa), Goiburu (talde mistoa) eta Zinkunegi (talde mistoa), guztira **HIRU KONTRAKO BOTO**]:

**ONARTZEA ETA BERE EGITEA** EUDELen idatzia, ETAk 2009ko ekainaren 19an egindako atentatua gogor salatzen duena, goian jasota dagoen bezalaxe.

Horrenbestez, udalbatzarrera bertaratutako pertsonetako batzuk hitza hartu eta gero, alkate-presidenteak bilkurari amaiera ematen dio eta, erabakitakoa jasota gera dadin, nik, idazkaria naizenez, akta hau egiten dut alkatearen ontzat emanarekin

**ALKATE-PRESIDENTEA,**

**IDAZKARIA,**